



KOSTU EGITURAK

Proiektu honek bi gastu-mota ditu: kostu finkoak eta aldakorrak. Kostu finkoak aldatuko ez direnak eta zaborra ekoizteko ezinbestekoak direnak dira. Hau da, gutxieneko kostu horiei aurre egin behar diegu ekoizpena egia bihur dadin. Bestalde, kostu aldakorrak kanpo-faktoreen arabera dira, hala nola eskaria edo ingurunea. Eta kostuak ez dira beti berdinak izaten.

KOSTU FINKOAK

INFRAESTRUKTURA

Diseinatzaile gisa gure jarduera garatu ahal izateko lan-espazio bat behar dugu, fabrikatutako produktua biltegitatu ahal izateko. Espazio hau alokatu egingo dugu. Lehenengo stock-ean ez ditugu produktu askorik egingo, eta, beraz, ez dugu espazio handirik beharko hasiera batean. Espazio horren kostu finkoa honako hauek osatzen dute: hileko alokairua, aseguruak, komunitatearen gastuak (halakorik balego) eta oinarritzko mantentze-lanak.

SUMINISTRO KOSTUAK

Hornidurei dagokienez, ura, argia eta internet bezalako gastuei aurre egin behar diegu. Gure lan-eremuak baldintza ezin hobeak izan behar ditu: bainugela, berogailua, lanparak. Diseinatzaile gisa, erabiliko dugun software-gastuen zati finkoa gure gain hartu behar dugu. Ezinbestekoa da Interneterako konexioa izatea gure diseinuak garatzeko, publizitate-kanpainak egiteko eta beste enpresa batzuekin harremanetan egoteko.

PERTSONALAK ETA ADMINISTRATIBOAK

Proiektu hau garatu ahal izateko, ezinbestekoa da langile bakoitzak soldata finkoa izatea, gizarte-segurantzako kuotekin. Gure enpresaren alderdi administratiboaz arduratuko den gestoria bat ere kontratatu nahi dugu.

PLATAFORMA ONLINE

Produktua ezagutarazteko eta bezeroek gurekin harremanetan jartzeko plataforma bat izateko, web orri bat izan behar dugu. Horretarako, hosting baten eta domeinuaren ardura hartu behar da.

KOSTU ALDAKORRAK

PRODUKZIO KOSTUAK

Zaborraren ekoizpena kudeatzen diguten enpresekin harremanetan jarriko gara. Hau da, piezak bereizita ekoiztea eta muntatzea. Muntatutako zaborra biltegira iritsiko litzaiguke. Muntaketak eta ekoizpenak kostu bat dute, eta horren ardura hartu behar dugu. Fabrikazioaren kostua aldakorra da, hainbat faktoreren mende baitago, hala nola eskaria, materialen prezioa eta unitate bakoitzeko ekoizpen-kostua, ekoitzi beharreko kantitatearen arabera.

PACKAGING

Produktuak gure lan-eremuan biltegitratzeaz arduratuko gara. Gordetzeko eta salgai jarriko diren dendetara garraiatzeko prest egoteko. Packaging egokia diseinatu eta egingo nahi dugu. Kostua aldakorra da, eskariaren arabera baita.

PUBLIZITATEA

Zabor ontziak ezagutarazteko eta sustatzeko, publizitate-kanpainak egingo ditugu kartelen, sare sozialetako argitalpenen, sare sozialetako iragarkien, telebistako iragarkien eta liburuxken kontura. Publizitatea noizean behin egingo da, une erabakigarrietan. Black friday, gabon eta, batez ere, produktuaren merkaturatzean bezala. Unean uneko aurrekontuaren arabera izango da kostua.

LOGISTIKA ETA BANAKETA

Aurreko puntuetan bezala, banaketa-kostua faktore askoren arabera da, batez ere eskariaren arabera. Garraioa behar dugu produktua biltegira ekar diezaguten, saltokietara banatu dezaten, eta gure webgunean zabor ontzia erosten duten bezeroei etxera bidal diezaieten.